

EAJ-PNVk gezurtatu egin du Amurrioko Udalean euskara teknikari lanpostua kendu izana, eta berretsi egin du gure hizkuntza propioaren aldeko konpromisoa eta apustua

Gizarte Ongizateko Arloan lanpostu publiko berri bat sortu da, Amurrioko bizilagunen behar sozialei eraginkortasun eta bizkortasun handiagoz erantzuteko.

Amurrioko Euzko Alderdi Jeltzaleak, EH-Bilduk eta Aiaraldeko Euskaingintza Kontseiluak zabalduko adierazpenen harira, erabat gezurtatu nahi du Udaleko Euskararen Normalkuntzako teknikari lanpostua kendu izana. Izan ere, egia esan, lanpostu publiko hori betetzen duen pertsonak 20 urte baino gehiago daramatza horretan. Eta hala jarraituko du.

Atzoko osoko bilkuran, enplegu publikoko lanpostu berri bat sortzea onartu zen Enplegu Lanpostuen Zerrendan (LPZ), Gizarte Ongizateko Arloa indartzeko, Amurrioko bizilagunen eskaerei erantzuteko helburuarekin, EAJ-PNVren kudeaketan pertsonengan eta haien bizi-kalitatean oinarritutako konpromiso gisa.

Era berean, lanpostu-zerrenda eguneratzeko, Arte Eskolan bi lanpostu amortizatu ziren, ikastetxean beren eginkizunak betetzen zituzten bi enplegatu publikoek erretiroa hartu ondoren, bai eta inoiz bete ez den hizkuntza-normalizazioko lanpostu baten lanaldi erdia ere.

Horregatik guztiagatik, azken orduotan argitaratutako informazioak publikoki baztertzeaz gain, EAJ-PNV Amurriok berretsi egin nahi du gure hizkuntza propioa, euskara, sustatzeko eta babesteko Gobernu Taldeak duen konpromiso irmoa eta apustu sendoa, aspaldidanik frogatu den bezala.